eragiketen ondorioz sor litezkeen kalte eta galera guztien erantzulea, 2017ko SPKLaren 238. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horretarako hauxe ekarri behar du: aseguru polizaren kopia bat eta hori ordainduta dagoela ziurtatzen duen agiria, kontratuaren berezko arriskuak ordainduko dituena, eta bereziki inori eragindako kalteengatik eta esleipendunaren aldi baterako zein betiko langileen ekintzetan, makinen eta tresnen erabileran, nahiz esleipenaren xedeko zerbitzua ematerakoan burututako lanetan sor litezkeen kalteengatik eratorritako erantzukizun zibila, kaudimenari buruzko atalean zehazten den legez. Kalte edo galerak Administrazioak emandako aginduren baten ondorioz zuzenean eta berehala gertatuak badira, legeetan ezarritako mugen barruan izango du erantzukizuna Administrazioak. B. BERANDUTZEAGATIK ETA EXEKUZIOAN AKATSAK AGERTU DIRELAKO Kontratistaren erantzukizuna izango dira berak gauzatzen dituen lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai eta kontratua gauzatzerakoan izandako hutsegite edo hutsuneetatik, edo metodo desegoki edo ondorio okerretatik Administrazioarentzat edo hirugarrengoentzat sortzen diren ondorioak. Exekuzioan atzeratuz gero, zigorrak etor litezke eta kontratua aldi baterako suntsitzea, 192. eta 193. artikuluekin bat etorriz. Zigor berak ezarriko dira kontratua osorik bete ezik zein zati batean bete ezik. Zati bat bete ezik, zigorrak kalkulatzeko bete barik geratu den zerbitzuaren aurrekontua hartuko da aintzat. Horrek guztiak ez dio kentzen Administrazioari kontratua suntsitzeko daukan ahalmena. Era berean, administrazioak aukera dauka kalte-ordainak eskatzeko.	los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto al efecto en el artículo 238 de la LCSP 2017. A tal efecto aportará copia de una póliza de seguro y justificante de pago de la misma, que cubra los riesgos inherentes al contrato y en especial la responsabilidad civil (general y patronal) en que pueda incurrir por los daños causados a terceras personas y derivados de actos del personal de el/la adjudicatario/a, de sus empleados/as y dependientes, permanentes u ocasionales, de la maquinaria y el equipo, así como a consecuencia de los trabajos realizados durante la ejecución del servicio, en los términos que se recoja en el apartado de solvencia. Cuando tales daños hayan sido ocasionados como consecuencia inmediata y directa de una orden de la Administración, ésta será responsable dentro de los límites señalados en las leyes. B. POR DEMORA Y POR DEFECTOS EN LA EJECUCIÓN El/La contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones o servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato. La demora en la ejecución dará lugar a la imposición de penalidades y eventual resolución del contrato, en los términos previstos en los artículos 192 y 193 siendo de aplicación el mismo régimen de penalidades tanto en el caso del incumplimiento total como del incumplimiento parcial. En el caso del incumplimiento parcial el cálculo de las penalidades se referirá al importe del presupuesto del servicio parcialmente incumplido. Lo anterior se entiende sin perjuicio de la facultad de la Administración de proceder a la resolución del contrato y a la eventual

2017ko SPKLaren 76.2 eta 202.1 artikuluekin bat etorriz, ontratuaren konpromisoak edo baldintza bereziak txarto bete edo bete ezean, zigorrak arau haustearen larritasunaren araberakoak izango dira, 2017ko SPKLaren 192. artikuluan ezarritako gehienezko mugen barruan (%10 edo %50).	reclamación de indemnización de daños y perjuicios. En materia de prestación defectuosa o de incumplimiento de los compromisos o de las condiciones especiales de ejecución del contrato, establecidas al amparo de los artículos 76.2 y 202.1 de la LCSP 2017, se impondrán penalidades en proporción a la gravedad del incumplimiento hasta los límites máximos del 10% o del 50% en los términos señalados en el artículo 192 de la LCSP 2017.
13.- KONTRATUA ALDATZEA Kontratua interes publikoko arrazoiengatik baino ezin da aldatu, 2017ko SPKLaren 204. eta 206. artikuluetan aurreikusitako moduan. Aldaketarik egin behar izanez gero, aldaketak 153. artikuluaren arabera egin behar dira, 2017ko SPKLaren 203. eta 204. artikuluetan xedatutakoaren arabera. SPKLaren 205. artikuluaren arabera, kontratazio-organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta banan-banan hartuta edo guztiak batera, hasierako kontratuaren prezioaren ehuneko 20tik gorakoa ez den aldaketa eragiten badute beren zenbatekoan, BEZik gabe. Kontratistarentzat aldaketa derrigorrezkoa ez denean, kontratazio-organoak berak erabakiko du aldaketa hori egitea kontratistak aldaketa hura idatziz onartu ondoren; hala ez bada gertatzen, kontratua deuseztatu egingo da 2017ko SPKLaren 206. artikuluari jarraituz. Halako kasuetan, kontratua aldatu aurretik, proiektuaren edo baldintza teknikoen idazleari entzunaldia eman beharko zaio, hiru egunekoa baino motzagoa ez den epe batean, bidezko jotzen dituen azalpenak eman ditzan, baldin eta zerbitzu-kontratu bat dela-eta baldintza horiek kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek eginak badira.	13.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO El contrato solo podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma prevista en los artículos 204 y 206 de la LCSP 2017, salvo en cuanto se establece en este Pliego. Las modificaciones del contrato, cuando procedan, deberán formalizarse conforme a lo establecido en el artículo 153 y se regirán íntegramente por lo dispuesto en los artículos 203 y 204 de la LCSP 2017. Según dispone el artículo 205 de la LCSP, las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para los contratistas cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido. Cuando la modificación no resulte obligatoria para el contratista, la misma solo será acordada por el órgano de contratación previa conformidad por escrito del mismo, resolviéndose el contrato, en caso contrario artículo 206 de la LCSP 2017. En estos supuestos antes de proceder a la modificación del contrato, deberá darse audiencia al redactor del proyecto o de las especificaciones técnicas, si estos se hubiesen preparado por un tercero ajeno al órgano de contratación en virtud de un contrato de servicios, para que, en un plazo no inferior a tres días, formule las consideraciones que tenga por conveniente.

2017ko SPKLaren 205. artikuluaren lehen paragrafoan jasotako baldintzak betez gero, aurreikusi gabeko aldaketa bat justifikatuta dago kasu hauetan: a) Hasieran kontratatutakoak baino zerbitzu gehiago behar direnean, legez aurreikusitako baldintzak betez gero. b) Kontratuaren lizitazioa egin zenean aurreikusi ezin ziren eta gerora agertutako gorabeheren ondorioz sortu bada indarrean dagoen kontratua aldatu beharra, legezko baldintzak betez gero. Hain zuzen ere, espresuki aurreikusten da aldatzeko aukera honako kasu hauetan: A.- Baldintza Teknikoen Pleguaren arabera bi zerbitzuetako batentzat (Zapatublai edo Gazteleku) aurreikusitakoak baino pertsona gutxiago baldin badaude izena emanda, eta, horren ondorioz, bietako baterako aurreikusitako begirale guztiak behar ez badira, beste zerbitzuari esleituko zaizkio behar ez diren begiraleak, hark hala behar izanez gero, eta horrek ez du kontratua aldatzea ekarriko. Hau guztiau kontratuaren arduradunaren oniritziarekin. Era berean, begiraleak zerbitzu batetik bestera pasatu ahal izango dira, erabiltzaileen gehiengoak horrela eskatuz eta baimenduz gero, eta kontratuaren arduradunak horren aldeko txostena eginez gero. Hala ere, beste zerbitzuak monitore gehiago behar ez baditu, honetarako izena eman duten pertsonen kopuruaren arabera, dagokion ekitaldian ordaindu beharreko preziotik kenduko dira beharrezkoak ez diren langileei eta haien gizarte-segurantzari dagokien soldata-zenbatekoa, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa oinarritzat hartuta, enpresa edo erakunde esleipendunaren eskaintzaren arabera. Era berean, izena eman duten pertsona gehiago egonez gero Zapatublain eta, horren ondorioz, aurreikusitakoak baino begirale gehiago behar izanez gero, Baldintza Teknikoen Pleguaren	Los supuestos que eventualmente podrían justificar una modificación no prevista, siempre y cuando esta cumpla todos los requisitos recogidos en el apartado primero de artículo 205 de la LCSP 2017, son los siguientes: a) Cuando deviniera necesario añadir servicios adicionales a los inicialmente contratados, siempre y cuando se den los requisitos legalmente previstos. b) Cuando la necesidad de modificar un contrato vigente se derive de circunstancias sobrevenidas y que fueran imprevisibles en el momento en que tuvo lugar la licitación del contrato, siempre y cuando se cumplan las condiciones legales. En concreto, se prevé expresamente su posibilidad de modificación en los siguientes supuestos: A.- Si hubiera menos personas apuntadas que las previstas, según Pliego de Prescripciones Técnicas, para uno de ambos servicios (Zapatublai o Gazteleku) y, como consecuencia de ello, no hicieran falta todas las personas monitoras previstas para uno de ambos, se asignarán las personas monitoras no necesarias al otro servicio, si éste lo requiriera, sin que ello conlleve modificación de contrato. Todo ello, contando con el visto bueno de la responsable del contrato. Del mismo modo, los monitores se podrán pasar de un servicio al otro, si así lo solicitase y lo consintiese la mayoría de las personas usuarias, y siempre que contase con el informe favorable de la responsable del contrato. Si, sin embargo, el otro servicio no requiriese de más monitores, en función del número de personas apuntadas al mismo, se deducirá del precio a pagar en el ejercicio correspondiente el importe salarial correspondiente al personal no necesario y su seguridad social, tomando como base el convenio colectivo de aplicación según la propia oferta de la empresa o entidad adjudicataria. Del mismo modo, si hubiera más personas apuntadas en Zapatublai y, como consecuencia de ello, hicieran falta más personas monitoras que las previstas, según Piego de Prescripciones Técnicas,

arabera, urte horretarako prezioa igoko da beharrezko langile gehigarriei eta haien gizarte-segurantzari dagokien soldata-zenbatekoarekin, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa oinarritzat hartuta, enpresa edo erakunde esleipendunaren eskaintzaren arabera. B.- Kontratuaren objektua aldatzea aurreikusten da jasotzen diren luzapen bietan. Honela, luzapen biak egin behar direnean, GAZTELEKU zerbitzua kendu ahal izango da, hurrengo hau gertatuko balitz: • GAZTELEKU zerbitzura hilabete bitan jarraian gazteen batez besteko partaidetza bost pertsonetara iritsiko ez balitz. Kasu honetan, kontratua aldatuko balitz, luzapenarerako kontratuaren preziotik GAZTELEKU zerbitzuari dagokion prezio-zatia kenduko zaio, hau kontratuaren prezioaren %63,50a delarik. Orduan, kasu honetan, luzapena bakarrik sinatuko litzateke ZAPATUBLAI zerbitzuari dagokionez, eta prezio bezala jasoko da esleipendunak eskainitako prezioaren %37,50a. GAZTELEKU zerbitzua lehen luzapenean kenduko balitz (2. Urtean), kontratua berriro aldatu ahal izango litzateke hurrengo luzapenean GAZTELEKU zerbitzua berreskuratuz. Halaber, luzatu ahal izango litzateke kontratua bakarrik ZAPATUBLAI zerbitzuarekin, kontratazio mahaiak horrela erabakiz gero, aurreko paragrafoan jaso diren kopuruak erabiliz. Kontratua indarrean dagoela aldatu behar bada, kontratuaren aldaketa formalizatu behar da eta aldaketaren gaineko iragarkia kaleratu behar da kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, aldaketa onartu eta 5 eguneko epean.	se incrementará el precio para ese año con el importe salarial correspondiente al personal adicional necesario y su seguridad social, tomando como base el convenio colectivo de aplicación según la propia oferta de la empresa o entidad adjudicataria. B.- Asimismo, se prevé la modificación del objeto en cada una de las dos prórrogas, de forma que se podrá suprimir el servicio de GAZTELEKU si se diera la siguiente circunstancia: • Que la asistencia de jóvenes al servicio de GAZTELEKU no alcanzase las cinco personas de media durante dos meses consecutivos. En tal caso, si se modificase el contrato, del precio del contrato de la prórroga se detraerá el importe correspondiente al servicio de GAZTELEKU, que se valora en un 63,50% del precio del contrato, suscribiéndose, en tal caso, una prórroga únicamente respecto al servicio de ZAPATUBLAI; recogiendo en la prórroga, como precio, el 37,50% del precio ofertado por la persona o entidad adjudicataria. En caso de no incluirse el servicio de GAZTELEKU en la primera prórroga (2º año), el contrato podrá ser modificado de nuevo con la inclusión del servicio de GAZTELEKU de cara a la siguiente prórroga, o prorrogarse solo con la parte del servicio de ZAPATUBLAI, si asi lo decide el órgano de contratación, aplicándose los porcentajes señalados en el párrafo precedente. Si se modificase el contrato durante su vigencia, se deberá formalizar la modificación del contrato y se deberá publicar en todo caso un anuncio de modificación en el perfil de contratante del órgano de contratación en el plazo de 5 días desde la aprobación de la misma.
14.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA	14.- RECEPCION DE LA PRESTACION Y PLAZO DE GARANTIA

Kontratua gauzatutzat hartuko da kontratistak prestazioa erabat gauzatu duenean, kontratuan ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta. Dena den, zerbitzua bete dela egiaztatzeko, kontratuaren helburu den zerbitzua amaitzen denetik hilabeteko epean zerbitzuari harrera egiteko ekintza formala eta positiboa egingo da. Kontratuaren izaera dela eta, hilabete bateko (1) berme-epea ezartzen da, erreklamazioak izan litezkeen jakin ahal izateko.	El contrato se entenderá cumplido cuando el/la contratista haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de la Administración, la totalidad de la prestación. En todo caso, su constatación, exigirá un acto formal y positivo de recepción que se efectuará en el plazo de un mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato. Dada la naturaleza de este contrato se prevé un plazo de garantía de un (1) mes, a fin de comprobar la existencia de posibles reclamaciones.
15.- KONTRATUA EZ BETETZEAREN ONDORIOAK Kontratistak kontratua betetzeko guztira ezarri den epearen barruan burutu behar du kontratua, eta prestazioen burutzapen partzialerako ezarritako epeak ere bete behar ditu. Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurreko eskaera edo errekerimendua egitea. 12. klausulan jasotako zigorrak eta 16. klausulan jasotako suntsitzeko ahalmenak gorabehera, kontratua suntsitu eta bermea galdu arren, Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du eragindako kalte-galerengatik, harik eta bermearekin estali ez den zenbatekoa estali arte. Langileen soldatak edo Gizarte Segurantza ez ordaintzeagatik Udalari kalterik eragitekotan, esleipendunak eragindako edozelako kaltea ordaindu beharko dio Udalari.	15.- CONSECUENCIAS DEL INCUMPLIMIENTO El/La contratista está obligado/a a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo, así como los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva. La constitución en mora no precisa intimación previa por parte de la Administración. Sin perjuicio de las penalidades recogidas en la cláusula 12.ª, y de las facultades resolutorias de la cláusula 16.ª, la resolución del contrato con pérdida de la garantía no excluye la indemnización a que la Administración pueda tener derecho por los daños y perjuicios ocasionados en lo que excedan del importe de la garantía incautada. El incumplimiento del deber de pago de los salarios de las trabajadoras o su Seguridad Social conllevará el deber de indemnizar al Ayuntamiento de cualquier perjuicio que tales incumplimientos pudieran conllevar.
16.- KONTRATUA SUNTSITZEKO ARRAZOIAK ETA ONDORIOAK Administrazio kontratuetarako aurreikusitako	16.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO Y SUS EFECTOS El contrato se resolverá por las causas previstas

arrazoiengatik suntsituko da kontratua, 2017ko SPKLaren 211. artikuluaren arabera eta testu horren 313. artikuluan zerbitzuetarako kontraturako ezarritakoetarako. 211. artikuluko f) eta h) paragrafoetan ezarritakoa aintzat hartuta, kontratuaren oinarrizko betebeharrak ez betetzea kontratua suntsitzea ekarriko du. Hona hemen arrazoiak: a) Isilpeko datuak edo aurrekariak isilean ez gordetzea. b) Azpikontratazio arloko mugak ez betetzea. Administrazioak kontratua suntsitu dezake plegu honetan azpikontrazio arloan ezarriko betebeharrak eta mugak ez betetzeagatik. c) Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenei trabak jartzeagatik. Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoia da kontratistak ez laguntzea edo trabak jartzea Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak gauzatzeko orduan, aurrez idatziz ohartaraziz gero. d) Pleguan ezarritako bitarteko pertsonal edo materialak ez atxikitzea. e) Pleguan zehaztutako baldintza bereziak ez betetzea. Alde biek erabakiz gero kontratua suntsitzea, alde bien eskubideak hitzartutakora egokituko dira.	para los contratos administrativos en el artículo 211 de la LCSP 2017 y por las específicamente indicadas para el contrato de servicios en el artículo 313 del citado texto. Al amparo de lo establecido en los apartados f) y h) del artículo 211, se consideran causa de resolución por incumplimiento de obligaciones contractuales esenciales las siguientes: a) No guardar sigilo respecto a los datos o antecedentes de carácter confidencial. b) Incumplimiento de las limitaciones establecidas en materia de subcontratación. La Administración podrá resolver el contrato por incumplimiento del mismo cuando se incumplan las obligaciones y limitaciones que el presente pliego impone al adjudicatario en materia de subcontratación. c) Obstrucción a las facultades de dirección e inspección de la administración. Se considerará igualmente justa causa de resolución del contrato por incumplimiento del contratista la obstrucción o falta de colaboración para hacer efectivas las facultades de dirección e inspección reconocidas a la Administración en el presente pliego, previamente advertida por escrito. d) No adscribir los medios personales o materiales exigidos en el presente pliego. e) Incumplir las condiciones especiales de ejecución definidas en este pliego. En el supuesto de resolución de mutuo acuerdo, los derechos de las partes se acomodarán a lo válidamente estipulado por ellas.
17.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK a) Interpretazioa	17.- PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN a) Interpretación

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.	Corresponden al Órgano de contratación de este Ayuntamiento las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de está, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
b) Uko egitea eta atzera egitea	b) Renuncia y desistimiento
Kontratazio organoak erabakitzen badu deialdia egin eta gero kontratu bati uko egitea edo esleipenerako prozedurari berriro ekitea, SPKLaren 336. artikuluan aurreikusitako txostena egin ondoren, jakinarazi egin behar die hautagaiei edo lizitatzaileei.	En el caso en que el órgano de contratación renuncie a celebrar un contrato para el que haya efectuado la correspondiente convocatoria, o decida reiniciar el procedimiento para su adjudicación, previa emisión del informe previsto en el artículo 336 de la LCSP, lo notificará a los candidatos o licitadores.
Kontratua hitzartzeari uko egitea edo prozeduran atzera egitea kontratazio organoak baino ezin du erabaki, esleipena baino lehen. Bata gertatu zein bestea gertatu, konpentsatu egin behar dira hautagai edo lizitatzaileak ordura arte sortutako gastuengatik, Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorrekin bat etorriz.	La renuncia a la celebración del contrato o el desistimiento del procedimiento sólo podrán acordarse por el órgano de contratación antes de la adjudicación. En ambos casos se compensará a los candidatos o licitadores por los gastos en que hubiesen incurrido de acuerdo con los principios generales que rigen la responsabilidad de la Administración.
Ez dago beste lizitaziorik sustatzerik, atzera egiteko erabili ziren arrazoiak bere horretan dauden bitartean. Prozeduran atzera egitea, ordea, ez da arrazoia lizitazio prozedurari ekiteko berehala.	No podrá promoverse una nueva licitación en tanto subsistan las razones alegadas para fundamentar la renuncia. En cambio, el desistimiento del procedimiento no impedirá la iniciación inmediata de un nuevo procedimiento de licitación.
II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA	II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR
18.- ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA ETA MODUA	18.- PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACION

A.- PROZEDURA Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua, eta izapide laburrak erabiliz, beti ere, 2017ko SPKLaren 131. artikuluan eta 156-158 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eskaintzarik onena hautatzeko zehaztu diren irizpideak ezarrita (2017ko SPKLaren 145. eta 146. artikuluak). Irizpide horiek pleguaren 19. klausulan datoz zehaztuta.	A.- PROCEDIMIENTO El contrato se adjudicará mediante procedimiento abierto, de acuerdo con lo establecido en los artículos 131 y 156 a158 de la LCSP 2017, de conformidad con la aplicación de los criterios que se detallan para la determinación de la mejor oferta y de acuerdo con los artículos 145 y 146 de la LCSP 2017, criterios que figuran en la cláusula 19.ª del presente pliego.
B- KONTRATATZAILEAREN PROFILA Kontratazio organoak internet bidez zabalduko du kontratatzailearen profila. Kontratatzaile profilerako sarbidea erakundearen web-orrian dago zehaztuta, baita EAEko Kontratazio Plataforman eta plegu honetan ere.	B.- PERFIL DE CONTRATANTE El órgano de contratación difundirá a través de internet su perfil de contratante. La forma de acceso al perfil de contratante se especifica en la página Web institucional, en la Plataforma de Contratación de la CAPV, y en este Pliego
C.- LIZITAZIOARAKO DEIALDIA 2017ko SPKLaren 135. artikuluan ezarritako moduan.	C.- CONVOCATORIA DE LICITACIÓN Se llevará a cabo en la forma prevista en el artículo 135 de la LCSP 2017.
D.- KONTRATATZEKO GAITASUNA Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko eta profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 74. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 19. baldintzan ezarritakoak izango dira. Era berean, 2017ko SPKLaren 70. artikuluan datozen bateragarritasun-baldintza bereziak bete behar dira. Gainera, beren kabuz edo baimendutako ordezkari baten bitartez egin dezakete	D.- APTITUD PARA CONTRATAR Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 74 de la Ley de Contratos del Sector Público. La solvencia se acreditará y evaluará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 19.ª. De igual modo deberán cumplirse las condiciones especiales de compatibilidad señaladas en el artículo 70 de la LCSP 2017. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante

(ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kide bat aritzen bada, horretarako ahalmena duela frogatu behar du agiri bidez. Batera zein bestera, ordezkariari ere lehen aipatutako kontratatzeko debeku horiek ezarri ahal zaizkio.	otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.
Enpresariek kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.	Los empresarios o las empresarias deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación objeto del presente contrato.
Kontratatzeko gaitasuna dute Europako Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainiarrek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Akordioaren Estatu sinatzaileek, eurek dauden Estatuko legediarekin bat etorriz, eskaini beharrekoa eskaintzeko gaituta badaude. Euren estatuko legegiak baimen berezia edo erakunde bateko kide izatea eskatzen badu zerbitzua eskaini ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.	Tendrán capacidad para contratar las empresas no españolas de Estados miembros de la Unión Europea o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo que, con arreglo a la legislación del Estado en que estén establecidas, se encuentren habilitadas para realizar la prestación de que se trate. Cuando la legislación del Estado en que se encuentren establecidas exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito.
Jarduteko gaitasunik, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala ez duten pertsonei esleituz gero kontratuak; sailkapena eskatzen denean, sailkapenik gabeko enpresei esleituz gero kontratuak; edo kontratatzeko debekuren bat dutenei esleituz gero, esleipena deusez izango da, 2017ko SPKLaren 39.2.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.	La adjudicación de contratos a favor de personas que carezcan de la capacidad de obrar, de la solvencia económica, financiera, técnica o profesional; de la habilitación empresarial o profesional cuando sea exigible; de la clasificación, cuando esta proceda o que estén incursas en prohibición de contratar serán nulas en los términos del artículo 39.2.a) de la LCSP 2017.
19.- BALIOESTEKO IRIZPIDEAK Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik hasita eta atxikitzen zaien haztapen-mailaz, honakoak dira:	19.- CRITERIOS DE VALORACION Los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes:

AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKOAK: 45 puntu	CRITERIOS NO AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES, O EVALUABLES MEDIANTE JUICIO DE VALOR: 45 puntos
A) Zerbitzua eskaintzeko moduari eta kalitateari buruzko Proiektua. 45 puntu arte Zerbitzua prestatzeko proiektua hartuko da aintzat, zerbitzuaren kalitate teknikoari dagokionez, jarraian zehaztuko delarik zer baloratuko den eta zein neurritan. Proiektuan xehetasun hauek jaso behar dira: a) Zaldibarko ume eta gazteen errealitatea aztertzea. Zaldibar eta bere errealitateari aplika dakizkiokeen proiektuaren xedeak ..... 3 puntu arte b) Gizarte eta hezkuntza arloko jardueren egitaraua. Aisialdiaren eremuan gizarte eta hezkuntza arloko zer nolako jarduerak egingo diren, egitarau bietan (ZAPATUBLAI eta GAZTELEKU), zehaztu behar dute, jardueraren xehetasunak banan-banan emanda. Horrezaz gain, zelako jarduera osagarriak egingo diren zehaztu behar dute. Arloak: natura, ingurumen heziketa, gorputza, garapen sozioafektiboa eta herrialdea (kultura, geografia, lekuaren historia eta euskara). Kontuan hartuko da generoaren eta integrazioaren ikuspuntua sartu izana. Denborazkotasuna: Lan-egutegia zehaztu behar da: animazio prozesuaren	A) Proyecto en cuanto a la forma de prestación y calidad del servicio: Hasta 45 puntos Se valorará la formulación de un proyecto de prestación del servicio, en relación a la calidad técnica del servicio, detallándose a continuación qué será objeto de valoración, y en qué medida. El proyecto deberá referirse a los siguientes extremos: a) Análisis de la realidad juvenil e infantil de Zaldibar Finalidad del proyecto-objetivos aplicables a Zaldibar y su realidad. ..... Hasta 3 puntos b) Programa de actividades socioeducativas. Se detallarán, por una parte, las actividades socioeducativas que se pretenden realizar en ambos programas (ZAPATUBLAI y GAZTELEKU) con descripción de aquellas actividades que puedan suponer una ejecución especializada con sus características determinadas y, por otra, las actividades complementarias que deberán enmarcarse, entre otras, dentro de las áreas de naturaleza y educación medio ambiental, área corporal y ámbito social y afectivo y área del país (cultura, geografía e historia del lugar y euskera), entendidas todas ellas dentro del marco del ocio y tiempo libre). Se tendrá en cuenta el tratamiento de la perspectiva de género e integración. Temporalidad: Se establecerá un calendario de trabajo detallado que

maiztasuna eta sekuentzia. Baliabide materialak: Jarduera bakoitzaren deskribapenean jaso egin behar da zein eratako materiala erabiliko den eta jarduera batzuetarako material berezirik behar bada, nabarmendu egin behar da zelako materiala den. Esleipendunak berak ipini behar du partaideen esku proposatutako jardueretarako behar den materiala. Begiraleek derrigorrean erabili behar dute eskuko telefonoa. ..... 35 puntu arte c) Hobekuntzak: Lizitatzaileek plegu honetan edota baldintza teknikoen pleguan agertzen diren jarduerak hobetu edo osatzen dituzten bestelako jarduerak jaso ahal izango dituzte, beti ere Udalarentzat gastu gehigarria izango ez balira. ..... 7 puntu arte	indique la frecuencia, la periodicidad y la secuencia de todo el proceso de animación. Medios materiales: Cada una de las actividades planteadas deberá ir acompañada de una descripción del material necesario para su desarrollo, especificando principalmente los materiales especiales en las actividades que así lo requieran. El adjudicatario deberá disponer de los materiales necesarios para la realización de las actividades propuestas. Se considera imprescindible la disposición de un teléfono móvil para los monitores. ..... Hasta 35 puntos c) Mejoras: Los licitadores podrán incluir aquellas actuaciones que mejoren o complementen las prestaciones recogidas en el presente pliego y en el pliego de prescripciones técnicas y no supongan un coste adicional para el Ayuntamiento. ..... Hasta 7 puntos
Dokumentu hori aurkeztu ezean, eskaintza besterik gabe kanpoan geratuko da. Agiri honek ezin izango du 20 orrialde baino gehiago izan (alde batetik bakarrik idatzita), Arial letra motan, 12 tamainarekin, lerroarteko lañoan, 2 zentimetroko marjinak, izenburua eta orri-azpikaldeekin egin beharko dira. Azalera horretatik goragoko orriak edo agiriak ez dira aintzat hartuko.	La no presentación de este documento implicará la exclusión de la oferta. Este documento no podrá tener más de 20 caras (sólo escrito el anverso), redactadas en letra tipo Arial, tamaño 12, con interlineado sencillo, y con márgenes, encabezado y pie de página de 2 centímetros. No se tendrá en consideración cualquier folio o documento que exceda de tal extensión.
AUTOMATIKOKI BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIORIK GABE BALORATU BEHARREKOAK: 55 puntu	CRITERIOS AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES, O EVALUABLES SIN NECESIDAD DE JUICIO DE VALOR: 55 puntos

B) Eskaintza ekonomikoa. 45 puntura arte. Aurkeztutako eskaintzen zenbatekoa baloratzeko modua: eskaintzarik merkeenari 45 puntu emango zaizkio. Gainontzeko eskaintzei ondorengo formula erabiliz emango zaie puntuazioa. Hona hemen formula: 45 x eskaintzarik merkeenaren prezioa/ balioztatutako eskaintzaren prezioa. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan ezarritakoarekin bat, Kontratazio-mahaiak enpresak baten proposamena ezin litekeela bete balioztatu ahal izango du, baldintza tekniko beretan, eskaintza neurrigabetzat edo anormaltzat jotzen bada, Herri-administrazioetako Kontratuen Legearen gaineko Erregelamendu Orokorra onartzeko den urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 85. artikuluan ezarritako irizpide objektiboak erabiliz. Eskaintzak neurriz gainekotzat edo anormaltzat joko dira aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren baino %25 merkeagoak badira; eskaintza bera ere sartuko da kalkulu horretan, uste baita horrelako merkatzeak langileen eskubideen kalterako baino ez direla. Inola ere ezin izango da justifikatu prezioa jaistea pleguan jasotzen diren betebeharrak ez betetzen, edo, zeharka, betebehar horiek ez betetzea suposatzen duten jarduerekin. C) HOBEKUNTZA: URTEROKO EGUNEKO TXANGO BAT PREZIOAREN BARRUAN 10 puntu emango zaizkio bere eskaintzan, prezio barruan, Zapatublai Egitaruaren barruan, urtero	B) Oferta económica: Hasta 45 puntos Para la valoración del importe económico de las ofertas admitidas, se procederá de tal manera que a la oferta más económica se le asignará 45 puntos. Las restantes ofertas económicas se evaluarán con la puntuación obtenida como resultado de la siguiente fórmula: 45 x Precio oferta más económica/ Precio oferta evaluada. La Mesa de Contratación de acuerdo con el artículo 149 de la Ley de Contratos del Sector Público, podrá apreciar que la proposición de una empresa no podrá ser cumplida cuando, en igualdad de condiciones técnicas, cuando determine que su oferta económica sea considerada anormal o desproporcionada, en aplicación de los criterios objetivos establecidos en el artículo 85 del R.D. 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Se considera una oferta anormal o desproporcionada aquella que oferte un precio un 25% inferior a la media de las ofertas presentadas, incluyendo para el citado cálculo la propia oferta objeto de valoración, ya que se interpreta que una baja tal únicamente puede ir en detrimento de los derechos de los trabajadores y de las trabajadoras. De ningún modo se podrá justificar la baja mediante la infracción de las obligaciones contenidas en el pliego, o mediante operaciones que, indirectamente, conlleven infringir tales obligaciones. C) MEJORA: UNA EXCURSIÓN DE DÍA, ANUAL, EN EL PRECIO Se darán 10 puntos a quien oferte, dentro del precio

egun-pasa bana egitea Euskal Herriko beste herri batera dohainik eskaintzen duenari. Egun-pasa bezala zapatu osoko plan bat antolatu beharko da, hau Zaldibarretik kanpo egin beharko delarik. Plana antolatu beharko da garraio publikoa erabiltzen edo eskaintzen duenak jarritako garraio pribatua erabiliz, baina erabiltzaileentzat inolako kosturik ez izanik. Eskaintza hau egiten bada, hobekuntza legez, zuzenean 10 puntu emango zaizkio eskaintzaren egileari. Esleipendunak hobekuntza hau eskainiko balu, urtero esan beharko lioke aldez aurretik zein plan egin nahi duen kontratuaren arduradunari, honekin adosteko proposatutako "egun-pasa", txangoaren detaileak zehazteko. Kontratuaren arduradunak, salbuespen legez, Udalak ordaindutako planteatutako planari buruzko hobekuntzak proposatu ahal izango ditu, horretarako aurrekontu partidarik egotekotan, eta kontratazio organuaren oneritzia izatekotan, beti bere eskumenen esparruaren barruan. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK SPKLaren 147. artikuluan ezarritakoak.	y sin coste adicional alguno, hacer una excursión al año a otro municipio de Euskal Herria dentro del programa de Zapatublai. Como excursión de día se deberá organizar un plan de sábado completo, que se deberá hacer fuera de Zaldibar. El plan se deberá organizar contando con transporte público o con transporte privado puesto a disposición por el ofertante, pero sin que tenga coste alguno para las personas usuarias. Se otorgarán directamente 10 puntos a quien oferte esta mejora en su oferta. Si la persona on entidad adjudicataria ofreciera esta mejora, anualmente debería comunicar por anticipado a la responsable del contrato qué plan pretende hacer, para acordar con ella el plan, y para concretar los detalles de la excursión. La responsable del contrato podrá proponer mejoras al plan planteado, que excepcionalmente sean asumidas por el Ayuntamiento, si cuenta con partida presupuestaria y con el consentimiento del órgano de contratación., siempre dentro del límite de sus competencias. CRITERIOS PARA DESEMPATE Se aplicarán los criterios dispuestos en el artículo 147 de la LCSP.
20. PROPOSAMENAK AURKEZTEA A.- Kontratazio espedientea Kontratazio honen espedientea kontratatzailearen profilean egongo da ikusgai, prozesua amaitu arte, beti ere, SPKLaren 116. artikuluarekin bat etorriz. Era berean, udal-bulegoetan aztertu daiteke, 9:00etatik 14:00ak arte, eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.	20. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES A.- Expediente de contratación El expediente de esta contratación, según dispone el artículo 116 de la LCSP, estará expuesto en el perfil de contratante hasta la conclusión del mismo.

	Asimismo, podrá ser examinado en la oficina de esta Administración, de 09:00 a 14:00 horas, hasta el último día de presentación de ofertas.
B.- Aurkezteko epea Proposamenak aurkezteko epea hogeita hamabost (35) egunekoa izango da, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, 2017ko SPKLren 156.2 artikuluan xedatzen den bezala.. Halaber, 2017ko SPKLren 156.5 artikuluarekin bat etorriz, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu behar da, gutxienez hamabost egun lehenago, proposamenak aurkeztu ahal izateko, 2017ko SPKLren 156.6 artikuluan xedatzen den bezala. SPKLaren 136. artikuluarekin bat, eskaintzak formatu elektronikoan aurkeztu behar dira Zaldibarko Udalaren web-orriaren plataforma digitalaren bitartez: http://www.zaldibar.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orrialdeak/listado.aspx "Lizitazioa" dioen atalean, eskaintzak aurkezteko aplikazioa jaitsi daiteke. C.- Aurkezteko modua Lizitatzaileek karpetak aurkeztu beharko dituzte plataformaren aurkezteko programak eskatzen duen bezala. Aurkeztutako artxiboak '*.pdf' formatoan bidali beharko dira, eta behar bezala digitalki sinaturik joan beharko dira, berauen izenburuak bere edukia laburbilduko duelarik.	B.- Plazo de presentación El plazo de presentación de proposiciones será de treinta y cinco (35) días, contados desde la fecha de envío del anuncio de licitación a la Oficina de Publicaciones de la Unión Europea tal y como dispone el artículo 156.2 de la LCSP 2017. Asimismo, tal y como se recoge en el artículo 156.5 de la LCSP 2017, la publicación del anuncio de licitación en el perfil de contratante deberá hacerse, en todo caso, con una antelación mínima de al menos quince días para permitir la presentación de las proposiciones, tal y como dispone el artículo 156.6 de la LCSP 2017. Tal y como se recoge en el artículo 136 de la LCSP, las ofertas se presentarán formato electrónico a través de la plataforma de presentación digital de la web del Ayuntamiento de Zaldibar: http://www.zaldibar.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orrialdeak/listado.aspx Donde, en el apartado de "Licitación", podrá descargar la aplicación de presentación de ofertas. C.- Forma de presentación Los licitadores habrán de presentar las proposiciones según disponga el programa de presentación de la plataforma. Los archivos remitidos deberán remitirse en formato "*.pdf" e ir debidamente firmados digitalmente, y su título deberá concretar el contenido de manera resumida.

Plataformak aukera hori ez ematekotan, aurkezpena egiteko era aginduz, bi karpetatan aurkeztu behar dituzte eskaintzak: "Zaldibarren ZAPATUBLAI-GAZTELEKU zerbitzua eskaintzeko proposamena, ... (lizitzailearen izena)"	En caso de no ofertar la plataforma tal posibilidad, ordenando la forma de presentación, se deberá presentar mediante dos carpetas, denominadas: "Oferta de ..... para el servicio de ZAPATUBLAI-GAZTELEKU en Zaldibar."
Sistemak ez badu onartzeko luzera batetik gorako esaldirik, karpetetan hitz hauek jarri behar dira: "Eskaintza ZAPATUBLAI-GAZTELEKU Zaldibar...."	En caso de no permitir tal longitud el sistema, las carpetas deberán contener estas palabras: "Oferta ZAPATUBLAI-GAZTELEKU Zaldibar ....."
Etenpuntuak dauden lekuan lizitzailearen izena jarri behar da, inizialak edo bera identifikatzeko izenaren zati bat.	En el lugar de los puntos suspensivos deberá constar el nombre del licitador, sus iniciales, o parte del nombre que permita su identificación.
Pleguetara eta lizitazioa arautzen duen dokumentaziora egokitu behar dira interesdunek proposamenak. Proposamena aurkezteak berekin dakar klausula edo baldintza guztiak onartzea, salbuespen barik. Era berean, aurkeztean baimena ematen zaio mahaiari eta kontratazio organoari Lizitatzaileen eta Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean zein Europako Batasuneko kide den estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.	Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea.
Proposamenak isilpekoak izango dira eta jarri beharreko baliabideak jarri behar dira isilpekoak izan daitezen, harik eta proposamenak ireki arte.	Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones.
Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu dezake, ez bada 2017ko SPKLaren 142. artikuluan jasotakoa gertatzen, aldaerak onartzea aurreikusita dagoen kasuetan. Eta 143. artikuluan (enkante elektronikoa). UTE (aldi baterako enpresa-elkartea) gisa ere ez dago beste batzuekin batera proposamenik aurkezterik banan aurkeztu badira. Era berean, ez dago UTE batean baino gehiagotan parte hartzerik.	Cada licitador o licitadora no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de lo previsto en los artículos 142 de la LCSP 2017, para los casos en que se haya previsto la admisibilidad de variantes, y en el 143, cuando se celebre una subasta electrónica. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en UTE con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una UTE. La contravención de lo anterior dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

Aurrekoa hautsiz gero, ez da onartuko era horretako proposamenik.	
21.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA ETA EDUKIA Lizitatzaileek proposamen guztietan bi karpeta egon behar dira dokumentazio honekin:	21.- FORMA Y CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES Todas las proposiciones de los licitadores deberán estar integradas por dos carpetas, con la siguiente documentación:
KARPETA: ADMINISTRAZIOKO AGIRI OROKORRAK ETA AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DIRENAK	CARPETA 1: DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA GENERAL Y NO AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLE
